



## TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

# hitza



Larunbata  
2010-05-08

VIII. URTEA 1995. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Ana eta Nikolas Garaialde anai-arrebak Orendaingo errotaren ondoan. A. BELAUNZARAN

## GURASOEN OFIZIOA AFIZIO BIHURTURIK

**ORENDAIN** Oso gutxi dira oraindik ere jardunean dauden errotak, horietako batean topatu ditugu Nikolas eta Ana Garaialde 6

**OIHANE SARASOLA** EMON TALDEKO ABESLARIA

«Gure helburu nagusia da festarako giro ona jartzea»

**IBARRA** 2007tik taldeko abeslaria da ibartarra, gaur eskainiko dute kontzertua Bonberenean 7

**JUAN SOROETA**  
EHUKO NAZIOARTEKO  
ZUZENBIDEKO IRAKASLEA

«Sahararrek erresistentziarekin jarraitu behar dute»

**TOLOSA** 'Maiatza Borrokan' hitzaldi honekin hasiko da 2



Otañoren bi bilobak Udalak egindako oparia eskuartean dutela. E. MAIZ

## Seme Kuttun izendatu dute Pello Mari Otaño bertsolaria

**ZIZURKIL** Hil zeneko 100. urteurrena izan berri da; plaka bat ere jarri diote herrian 4

## Sanblaspikok 'Maiatza Gorria' antolatu du

**TOLOSA** Hilabete bukaera arte hitzaldiak izango dira ostiralero 19:00etan Otsabi auzo elkartearen 3



### SARIDUNAK

Gaur Ibarren ospatuko den  
VII. Garagardo Festan  
afariaren sariduna  
Maria Jesus Murua Artola  
(Alegia)



hitzaldia  
TXOKOA hitza

**TOLOSALDEKO EUSKAL  
ESKOLA PUBLIKOA**  
BATXILERGOKO IRAKASGAIEI  
ESKAINITZA ZABALA

**ORIXETOLOSA**

**ORIXE**  
Eguzkiaren  
Irakaskuntza  
Zentroa

**BATXILERGOAK**  
Zientziak eta Teknologia  
Giza eta Gizarte Zientziak

943 65 13 87  
E-mail: 012900a@hitzaketa.net www.orixa.net

Aurreematrikula: Matrikulazio gela 1204

**E Elkarrizketa** **JUAN SOROETA** > EHUko Nazioarteko Zuzenbideko irakaslea

# «Egiten ari diren borrokari esker etorriko da irtenbidea»

**Gizartea** » 'Maiatza Borrokan' jardunaldien barruan hitzaldia emango du astelehenean, Mendebaldeko Sahararen eta Marokoren arteko gatazkaren inguruan.

**INIGO TERRADILLOS**

Tolosaldeko Sahararekin elkarrekin *Maiatza Borrokan* izeneko jardunaldiak antolatatu dituzten egunetarako, «sahararen egoeraz herriarraz sentsibilizatzeko» helburuarekin. Lehen egunak datorren astelehenean, hilaren 10ean, izango da, hain justu, Fronte Polisarioaren sorreraren urteurrenean. Kultur Etxean, 19:30etik aurrera hiruparte-hartze izango dituen hitzaldia izango da. Batetik, Ainatu Mohamed Alamin Tolosan bizi den sahararrek bere gerra garaiko bizipenak kontatuko dituzte; bigarrena, bi neska euskaldunek Mendebaldeko Saharara eginiko bidaiaren izandako esperientzia azalduko dute; eta Juan Soroeta EHU'n Nazioarteko Zuzenbideko irakaslea saharar gatazkaren inguruan ariko da. Azken 20 urteak Polisarioarekin lanean eman ditu, eta bere ustez, konponbiderako «Frantziak jarri behar du beharko luke eta sahararrek erresistentziarekin jarraitu».

**Zer azalduko duzu hitzaldian?**

Nola sortu zen gatazka azalduko dute, eta zein pauso eman diren: Espainia nola joan zen eta Maroko nola sartu zen, gerraren hasiera eta bake plana. Eta gaur egun egoera nolakoa den ere azalduko dute.

**Nola azalduko zenuke gaur egungo egoera?**

Geldituta dagoen bake prozesu bat dago. Nazio Batuek duten bidea erabiltzeko bi aldeek ados egon behar dute. 1988an adostu zen bake plana bi aldeen artean, eta Marokok plan hori erabili egin du azken unera arte soilik denbora irabazteko. Une honetan ez dago irtenbiderik, segurtasun kontseiluak bai-



HITZA

tauka gaitasuna plan bat inposatzeko, baina horretarako, bertako kide iraunkorren aldeko botoa beharko luke, eta Frantziak beto jarri behar du.

**Bide hori itxita dago, beraz?**

Bake plana erreferenduma egiteko helburuz sortu zen, eta horretarako 15 urte igaro dira errola egiten. Behin errola eginda, Marokok ikusi duenean bere kontrakoa zela, hau da, independentziaren aldeko jarraitu irabaziko zuela, planetik irteera erabaki zuen. Irtenbide bakarra zera da, segurtasun kontseiluak...

**«Frantziak betorako eskubidea erabiltzen du Marokok bake planean adostu zena ez egiteko»**

sun kontseiluak esatea Marokori 1988. urtean bake plana negoziatu zutela, eta orain betetzea dagokiolako. Baina, hori segurtasun kontseiluan planteatzen denean, Frantziak beto erabiltzen du, eta hori bukatzen da dena. Estatu Batuek, Britainia Handia, Txina, Errusia edo Frantziaren kontra, edota euren kideren baten kontrako zerbaite badago, segurtasun kontseiluak ez du onartuko, betorako eskubidea erabiliko baitute. Beraz, zaila da hortik irtenbiderik etortzea.

**Eta nondik etor liteke irtenbidea?**

Lurralde okupatueta Amimnatu

Haidar bezalakoak egiten ari diren borrokari esker etorriko da irtenbidea.

**Haidarren aldarrikapen nazioarteko mailan oihartzuna izan zuten.**

Bai, eta gutxi faltatu izan zen Europako Parlamentuak Marokoren aurkako ebazpen bat onartzeko. Hori ez zen gertatu azken unean Frantziak Maroko presionatu zuelako. Esan zion Marokori jarri behar horrekin jarraituz gero lurralde guztiak kontratuzko zituela. Dena den, nazioarteko iritzien aurrean oihartzun oso handia izan du. Horrela jendeak behintzat izan du sahararren egoeraren berri.

**Geroz eta jende gehiago egiten du protesta.**

Fronte Polisarioak ezer gutxi irabazi duela hasiak dira ikusten. Erabili dituzte bide diplomatiko guztiak erakusteko norena den errua eta zergatik ez den konpontzen gatazka, baina aurrerago ez da iritsi. Horregatik, horrekin ezer lortzen ez dela ikusita, jendea kalera ateratzen hasi da, independentziaren aldeko eskubidea aldarrikatzeko. Baina, hori oso gogorra da, estatu poliziala baita, eta guztia erabat kontrolaturik dago.

**Hainbeste urte igaro eta gero, irtenbidea zailtzen ari da urteek aurrera egin ahala?**

Gerta liteke Timorren gertatu zenera moduko zerbaite gertatzea Marokon. Batetik, Rif dago iparraldean independentziaren alde, bestetik, ejerzitua dago erregearen kontra, aipatzeak da biztanleriaren %80 inguru pobrezia mugetan bizi den bitartean erregeak ez duela ezer egiten horri buelta emateko. Beraz, edozein unetan lehertu daiteke egoera, baina hori ezin da jakin. Oso zaila da esatea irtenbidea zein izan beharko lukeen, baina lurralde okupatueta egiten den erresistentzia garrantzitsua da, eta baita borroka bide erakutsuetatik egiten ari direla irabazteko.

## Fuengirolan oporraldia eta Senda Vivara txangoa Harizpe elkarrekin

**Aisia** » Ekainaren 1etik 15era izango da Fuengirolako egonaldia eta Senda Vivara maiatzaren 27an joango dira.

**ERREDAKZIOA**

Harizpe jubilatua eta pentsiodunen elkarrekin aisialdirako bi ekintza antolatu ditu. Bata, Fuengirolan (Malaga, Espainia) hamabost eguneko egonaldia, eta bestea Nafarroako Senda Viva parkera egunbeteko txangoa.

Fuengirolako oporraldia ekainaren 1etik 15era izango da, maiatzaren 31n aterako direlarik Tolosako Santa Klarako geltokitik autobusez, 22:00etan. Bazkideek 520 euro ordaindu beharko dute, eta ez bazkideek 526 euro. Hiruko gela hartuz gero, hirugarren lagunaren prezioa 395 eurokoa da, eta banakako gelarentzat 145 euroko osagarria ordaindu beharko da. Prezio honen barruan autobusa-

ren joan-etorria, 14 eguneko egonaldia pentsio osoan, bidaiak aserua eta gidari laguntzaileak sartzen dira.

Izena eman nahi dutenek maiatzaren 19a izango dute azken eguna, eta izena emateko unean 100 euro ordaindu beharko dute aurrerapen gisa. Gainontzeko txartela jasotzean ordaindu beharko dute.

**Senda Viva ezagutzeko aukera**

Bestalde, maiatzaren 27an Nafarroako Senda Viva parkera joango dira Harizpe elkarrekin kideak. Egun horretan, 08:00etan aterako dira Santa Klaratik autobusez. 2-3 orduko ibilaldi turistikoak egin ostean bazkaltzera joango dira Castejonera.

Egunbeteko txango honetara joan nahi izanez gero, 31 euro ordaindu beharko dute bazkideek, eta ez bazkideek, berriz, 34. Maiatzaren 24a izango da izena emateko azken eguna, edo bestela, plaza guztiak bete arte.

## Kiroldegia hobetzeko lan taldea osatuko dute

**Kirola** » 2008 urtetik ari da martxan lan talde bat Usabalen dauden beharrak, kexak eta hutsuneak aztertuz.

**ERREDAKZIOA**

Tolosako Udalak 2007 urteko azaroaren 12an eginiko Kirol Batzordean, Usabal Kiroldegian inguruan abonatu lan taldea sortzea adostu zuen, eguneko martxa aztertze, erabilpen kexak kontrolatzeko eta hobekuntzak proposatzeko. 2008an lan taldea sortu eta lanean hasi ziren «kiroldegian funtzionamendua hobetu asmoz». Egiteko hori jarraipena

eman nahi diote, baina taldeko kideen aldatzea egin behar dute horretarako.

Taldea, abonatuak, klubetako ordezkari batek, Usabal Kiroldegiko kudeatzaileak, udal kirol teknikariak eta Tolosa Lantzeneko teknikariak osatuko dute eta hila-betez behin erabiltzailearen ikuspegitik Usabal aztertzea izango dute helburu.

Lan talde honen parte izan nahi dutenek 943 69 74 55 telefono zenbakira deitu beharko dute, edo bestela kiroldegiko sarreran jakinarazi. Interesatu guztien artean zozketa egingo dute eta besteekin zerrenda irekiko da sartze berria egiterako orduan kontuan hartzeko.

## Iragarki laburrak

**LANA**

■ **Euskalduna.** Mutil euskalduna behar da lanerako. 25-30 urte bitartekoa. Deitu, 13:00etatik 15:00etara bitarte, 649 51 09 41 telefono zenbakira.

**SALGAI**

■ **Furgoneta.** Volkswagen Multi-van furgoneta salgai. Westfalia saibaiarekin. Berogailu estatikoa. Bi-

zikletak eramatekoarekin. Prezio interesgarria. Deitu 665 73 42 27 telefono zenbakira.

**ALOKAIRUA**

■ **Tolosa.** Apartamentua alokatzen da, Tolosako Alde Zaharrean. Etxe berrieta, igogailua, berogailua eta guztiz hornitua. Interesatuak deitu 665 70 93 80 telefono zenbakira.

### KAZETARIAK (Erref.: 2010-LPKAZ) Berria egunkariak kazetariak behar ditu ordezkapenatarako lan poltsa osatzeko.

**Eskatzen**

- Kazetaritza ikasketak izatea
- Kazetari lanetan esperientzia izatea
- EGA edo baiokideia den euskara maila izatea

**Kontuan hartuko da:**

- Quark X Press programa erabiltzen jakitea
- Frantsesez eta ingelesez jakitea
- Gidatzeko baimena eta autoa izatea

Bidali curriculuma gizabaliabideak@jarduna.net helbide elektronikora, erreferentzia zehaztuta, maiatzaren 10a baino lehen.

**Mahala**  
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK

**Jogurta**

Mahala baserria - 20491 LEABURU  
Tel.-Faxa: 943 673 499  
Tel. Mug.: 689 805 633

## Euskal Herrian Euskarazek Euskaraz Bizi Eguna antolatu du gaurko

**Villabona** » 10:30ean hasiko da jai eguna plazatik abiatuko den buruhandi eta erraldoien dianarekin.

### ERREDAKZIOA

Villabonako Euskal Herrian Euskaraz taldeak Euskaraz Bizi Eguna antolatu du gaurko. Egun osoko egitaraua prestatu dute euskararen erabilera aldarrikatzeko.

Izan ere, EHEko kideen ustez, «mundu guztiak esango du euskararen alde dagoela, baina bada garaia, euskararen alde egotetik, euskararen eta herri euskaldunaren alde egitera pasatzeko».

Era berean, Villabonako kaleetan gaztelania nagusitzen ari dela nabarmendu dute eta «euskaldunok gero eta gehiago garen arren, kale erabilera ez da aurrera pausu nabarmenik ikusten».

Taldearen ustez, hala ere, «fenomeno hori ez da ematen euskaldunok gure hizkuntza erabili nahi ez dugulako, erabilerarako esparru mugatuak ditugulako baizik». Egoera honek asko kezkatzen du Villabonako Euskal Herrian Euskaraz taldea eta «Euskal Herriaren baitan zonalde euskaldun batean bizi garena esatea asko gustatzen zaigu, baina tamalez, gure herrian euskaraz bizitzea ezinezkoa dela ohartzen gara», esan du.

### «Euskaraz bizitzearen aldeko hautua» egiteko deia

«Billabonatar guztiei dei egiten diegu euskaraz bizitzearen aldeko hautuari hauspoa eman diezaienten eta Euskaraz Bizi Egunean parte hartuz apustu horrekiko atxikimendua adieraz dezaten, soilik horrela lortuko baitugu Villabona euskaldun bat eraikitzea», argitu dute.

### » EGITARAUA

- **10:30.** Diana erraldoi eta buruhandiekin plazatik abiatuta.
- **11:30.** Haur Krosa Malkar plaza-tik abiatuta.
- **12:00.** Dantza eta musika emandaldia plazan. Oinkari dantza taldearen eta Loatzo musika eskolaren eskutik.
- **14:00.** Bertso bazkari herrikoia Kultur Etxean. Hamaika Bertuteko Amaia Agirreazaldegia, Ander Lizarralde, Amaia Agirre eta Unai Muñoz bertsolariekin. Gai-jartzaile lanetan Iker Iriarte ariko da.
- **18:00.** Kalejira-poteoa kale animazioarekin Kultur Etxetik abiatuta.
- **21:00.** Bokata afaria plazan Onddo Gazte Asanbladaren eskutik.
- **22:00.** Kantuki herriko taldearen kontzertua.

# Iritsi dira Sanblaspikoren 'Maiatza Gorria' jardunaldiak

**Tolosa** » Hilabete bukaera arte hitzaldiak izango dira ostiralero Otsabin 19:00etan; kontzertuak ere antolatu dituzte.

### ERREDAKZIOA

Azken urteetako ohiturari jarraituz aurten ere Sanblaspiko Gazte Asanbladak *Maiatza Gorria* antolatu du. Hilabete osoan zehar luzatuko diren jardunaldi hauetan hitzaldiak eta kontzertuak egitea aurreikusitakoak dira, eta lehenengoa atzo bertan izan zen. Bertaratutakoek Kuban 2009ko uztailean egon zen brigadista baten esperientzia izan zuten entzungai eta Kubako Iraultzaren egungo egoera ere eztabaidatu zuten *Kuba, brigadista baten esperientzia* izenpean. Hitzaldia, beste guztiak bezala, Otsabi auzo elkartearen izenean 19:00etan (Izaskun auzoko Igaralde kalea, 4 -Denak tabernaren ondoan-).

### Elkartasuna

«Oraingoan ere, beste aldi bat bezala, Tolosan herri zapalduetako elkartasun internazionalista zein kanpotik Euskal Herriarekiko egon den elkartasuna landu nahi izan dugun», argitu dute Sanblaspikoko kideek.

Horiek horrela, «Kolonbiako gatazkan Giza Eskubideen urraketaz Komite Internazionalistak eta No Más Bases erakundeetako kideak izango dira hizlari, pami-litarrek zigorgabetasun osoz eta Gobernuaren baimenaz egunero burutzen dituzten jazarpenak eta sarraskiak salatuz», argitu dute. Bestalde, Ibarako Jon Mintegiagag Uruguayn 1994an jazo ziren

### » EGITARAUA

- **Maiatzak 14.** 19:00etan Jon Mintegiagagaren 'El filtro, memorias de los refugiados vascos en Uruguay' liburuaren aurkezpena.
- **Maiatzak 15.** Otsabiren berrinaguruzazioaren reggae festako kontzertuak 18:00etatik aurrera: Donostiako Revolutionary Brothers ariko dira lehenengo eta Tolosako



Kuban iaz egondako brigadista baten hitzaldia izan zen atzo, Otsabin. I. GARCIA

gertaeraz ('Masacre del Hospital Filtro' bezala ezagutzen diren gertakariak, non euskal errefuxiatuen aldeko mobilizazioetan bi hil-dako egon ziren) jabetzen den *El Filtro, memorias de los refugiados vascos en Uruguay* liburuaren aurkezpena eskainiko du», zehaztu dute. Gai horren inguruan solasaldia ere egingo dute.

Era berean eta jardunaldiei amaiera emateko, «gazteei asko eragiten digun gai garrantzitsu bat izango dugu eztabaidagai, drogak alegia».

Hitzaldi eta solasaldiekin batera musika ere izango dute Maiatza

*Gorria*, hilaren 15ean, hain zuzen. Egun horretan Tolosan bada beste ekimenik ere, Txapin Festa, eta hori dela eta bat egin dute bi ekitaldiek.

Hilaren 15ean, hortaz, Otsabiren berrinaguruzazioa egingo dute 18:00etatik aurrera reggae doinuen laguntzarekin eta horretarako bi kontzertu izango dira; Donostiako Revolutionary Brothersena lehenik eta Glaukoma Sound System tolosarrena, ondoren.

## Castro eta Garmendia auzipetu dituzte Lazkaoko erasoarengatik

**Villabona** » Baltasar Garzon epaileak herenegun emandako autoan Aginagalde eta Errazkin ere aipatzen ditu.

### ERREDAKZIOA

Auzitegi Nazionalako Baltasar Garzon epaileak Villabonako Manex Castro eta Mikel Garmendia, eta Ugaitz Errazkin eta Beñat Aginagalde gazteak auzipetu zituen herenegun Lazkaon 2009ko otsailaren 23an Herriko Etxearen kontra izandako erasoarengatik.

Castrori, Aginagalderi eta Errazkini lehergailuak gorde izana leporatzen die, beste hainbat «kalteekin» batera, eta Garmendiarri «talde terroristari laguntzea» egotzen dio.

Garzonen autoan Castro, Aginagalde eta Errazkin Castroren etxean hain justu, lehergailua prestatu izana leporatzen die. Garzonek hilaren 18an jakinaraziko die auzipe-tzea.

### Bost ekintza egotzen dizkiete

Castro, Aginagalde eta Errazkin «ustezko ETAko kide legalak» direla dio autoak eta bost atentatu egotzen dizkiete; besteren artean PSEko Isaias Carrasco zinegotzi ohiren erailketa 2008ko martxoan, eta Ignacio Uria enpresaburuarrena, bederatzik hilabete berandua. Era berean, 2008. urteko urrian Tolosako epaitegiaren kontra izandako eraso ere egotzen diete gazteei.

## Harpidedun egiten bazara aisialdirako bonu bat opari

Eroski Bidaiak eta Baskinbox etxean eskutik.

40 eskaintzatik gora aukeratzeko Euskal Herrian zehar.

Gozatu berria



Hotel bateko egonaldi bat, 2 lagunentzako bazkari bat edo abertura eta kiril ekitaldi bat izango duzu aukeran.

HARRERAMETARAKO  
943-30 43 45 • harpidetza@berria.info

Uztailaren 15ean

Tenerifeko astebeteko egonaldia zotz egingo dugu BERRIren harpidedunen artean, Eroski Bidaiak-en eskutik.

Orain, beste arrazoi bat BERRIren harpidedun izateko.

EROSKI BIDAIAK zurekin

AUKERA EZAZU, BIZI EUSKARAZ berria



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Herritar asko hurbildu zuren atzo eginiko osoko bilkuran; bertan Seme Kuttun izendatu zuten Pello Mari Otaño bertsolaria. E. MAIZ

## Bere jaioterriak Pello Mari Otaño Seme Kuttun izendatu du

**Zizurkil** » Atzo eginiko osoko bilkuran, Seme Kuttun izendatu zuten eta plaka bat jarri zuten. Ondoren herri afaria egin zuten bertso saioarekin.

### ENERITZ MAIZ

Pello Mari Otañori eskainitako egunak izaten ari dira Zizurkil azken asteetan. Ostegunean, *Pello Mari Otaño, 1857-1910* liburuaren aurkeztu bazuten, atzo herriko Seme Kuttun izendatzeko osoko bilkura izan zen. Maria Angeles Lazkano alkatearekin batera, zinegotziak, Hermandorena Kultur Taldeko kideak eta hainbat herritar izan ziren udaltxeko pleno aretoan elkartu zirenak. Egun hauetarako Euskal Herrira etorri diren bere bi bilobek ere ez zuten hutsik egin eta Txurik euskarazko testu bat irakurtzera ere ausartu zen.

Ondoren, bertan zeuden guztiek Pedro Mari Plazarako bidea hartu zuten eta bertan, plaka berri bat jarri zuten. Eguna ongi borobiltzeko herri afaria egin zuten Intxaur frontoian. Eta bukaeran, Eñaut Agirre, Jexux Mari Irazu eta Sebastian Lizaso bertsolariek, bere bertsoak abestuz, Pello Mariaren bizitzaren irudikapena egin zuten.

### Meritu txostena, Esnalena

Pello Mari Otaño, herriko Seme Kuttun izendatu ahal izateko, Zizurkilgo herriak, meritu-txostena edukitu beharra zuen. Nork egingo ote zuen bila ibili otean, Pello Es-

nalek prestatua izan da. Otañok, gogoz edo gogoz kontra hiru bidai egin zituen Ameriketara. Herri baten oihartzunaren isla izan zirelarik bidaia haiek: Ameriketara doa Pello Mari Otaño, noiz eta Euskal Herria eta euskara dauden egoceran egonik.

Esnalek testuan, Juan Mari Lekuonaren hitz hauek azaltzen ditu: «Gerraurrean eta gerraostean, bertsozaleek buruz ikasten dute Otaño, eta erreferentzia klasikoztat hartzen. Eta, nabarmenago dena, Basarrik eta Uztapidek erdutzat hartzen dute Otaño, jantzia delako, ugarria, euskara garbikoa, arrazoizkoa, errespetuzkoa, garriko eskakizunei egokituagoa. Geroztik Amuriza etorri arte, behar bada gehienik eragin duen maisua izan da Otaño bertsolaritzan» adierazten du.

Bukatzeko, Pello Mariaren heriotzaren mendeurrenean, hura Zizurkilgo Seme Kuttun izendatzeko «izan zen bertsolaria, herri poeta eta kultura-sortzailea omentzen dugu, eta izan den eta den kultura-eragilea eta erreferentzia aho beteangorapatzen. Eta, jaioterriaren omena eta goraiapamena ez ezik, Euskal Herriarenak eta Argentinako euskal komunitatearekin ere eskaintzen dizkiogu».



'Pello Mari Otañoren arnasa, 1857-1910' liburuaren aurkezpena. E. MAIZ



Otañoren bi bilobak eta alkatea; Txurik testu bat ere irakurri zuen. E. MAIZ

### 'PELLO MARI OTAÑOEN ARNASA, 1857-1910' LIBURUA

100. urteurrenarekin batera Pello Mari Otañoren bizitza jasotzen duen, 'Pello Mari Otañoren arnasa, 1857-1910' liburuaren aurkezpena izan zen. Hilabeteetan egingadako lana atzo eman zuen ezagutzera Hermandorena Kultur Taldeak. Pello Joxe Aranburu, Julian Arrastoa eta Joxin Azkue izan ziren liburuaren nondik norakoak azaldu zituztenak. Hauen ondoan, gonbidatu bezala, Argentina eta Mexikon bizi diren bere bi bilobak izan ziren: Susana Ardanaz 'Txuri' eta Amalia Otaño.

Ekitaldia amaitu ostean, Hermandorena taldeko kideek, Pello Mariaren bi bilobei opari bana eman zieten; Eguzkilore bana jaso zuten. Aitona zenari egindako omenaldi ekitaldiengatik hunkituta agertu ziren eta «Eskerrik asko» handi batez eskertu zuten egindako guztia.

Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Donostiako Koldo Mitxelena Kulturuneko liburutegiaren bidez, Pello Mari Otañoren *Bertso guziak* liburuaren eskegi du interneten. Antonio Zavalak, *Bertso guziak* 1994. urtean kaleratu zuen. «Ira-kurle askok haren bertsoak soil-soilik nahiko lituzkeela ez genuen dudarik egiten. Eta horixe da hemen eskaintzen duguna: Otañoren bertso eder, sentikor eta dotoreak, ezeren eranskinik gabe, liburu hau euskaldun bertsozale askorentzat oparirik bikainena izango delakoan» azaldu zuen orduan.

### » MAIATZA SALTSAN

#### Maiatzak 9, bihar

■ **Otañoren ibilaldia.** 10:00etan Plazatik hasi eta Adunibar, Errekalde, Karidadeko Benta, Belen, Izagirre, Irigorri zeharkatu eta berriro Plazara joango dira. Bi orduko ibilaldia izango da.

#### Maiatzak 12, asteazkena

■ **Mahai ingurua.** 19:30ean, Pello Esnal eta Xabier Eguzkitze, Atxulondo Kultur etxean, Otañoren obra literarioari buruz ariko dira.

#### Maiatzak 15, larunbata

■ **Bertso Jaialdi handia.** Euskal Herriaren omenaldia Otañori 18:30ean. Amuriza eta Peñagarikano eta Iturriaga, Maia, Arzallus, Mendiluze, Agirre eta Alberdi.

#### Maiatzak 20, osteguna

■ **Bertsoak kantari.** 15:15ean, herriko hiru ikastetxeetako ikasleak Intxaur Frontoian, P.M. Otañoren bertsoak, ipuin kontalariaren laguntzarekin kantatuko dituzte.

#### Erakusketa

■ **Maiatzak 14 arte.** *Euskal Aztarna Argentinan* erakusketa prestatu dute eta Atxulondo Kultur Etxean egongo da.

■ **Maiatzak 15etik 23ra.** Zizurkil goiko Iriarte Etxean egongo da.





## Jimenezek jaso du irakurleen saria

**AMASA** Irati Jimenez idazleak 2009ko Berteriko Liburua Saria jaso zuen herenegun arratsaldean Amasan. *Nora ez dakizun hori* eleberrirengatik eman diote

saria irakurleek osatzen duten 111 Akademiak. Lan horren ale bat, larruz koadernaturik, jaso zuen idazle mundakarrak sari bezala. **AURRI**



## Magiaz betetako ikuskizuna

**ALEGIA** Guraso elkarteak antolatuta, Kultur Etxera hainbat lagun, haur zein heldu, joan ziren atzo Txan Magoaren emanaldia ikustera. Saio entretengarri eta magiaz betea izan zen, Txan Magoaren umore ukituarekin. **I. GARCIA**

# Rol maskulinoa eta femeninoa oraindik oso barneratuta daudela jasotzen du diagnostikoak

**Alegia** » Udalak bultzatuta Berdintasun Diagnostikoa burutu da; gai horretan «oraindik asko dago egiteko», dio alkateak.

**IMANOL GARCIA**

Alegian Berdintasun Diagnostikoa burutu du Udalak. Rol maskulinoa eta femeninoa oraindik oso barneratuta daudela da jasotako ondorioetako bat. Diagnostikoa Equala enpresako Miren Zeberio teknikariak osatu du. 2005ean lege bat onartu zen emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko eta udal administrazioei bide batzuk markatu zitzaizkien, horien artean diagnostikoa egitea. Emakunderen diru-laguntzabaten bitartez etorri zen aukera lana egiteko. «Herrian horrelako ikerketarik egin gabe zegoenez, ikusi genuen interesgarria izango zela diagnostikoa egitea», dio Aitor Sarasola alkateak.

Hainbat atal izan ditu. Alde batetik, elkarrizketa indibidualak egin dira, Udaleko kideei, udal langileei eta kultur, kirol zein guraso elkarteetako kideei ere. Hurrengo pausoa mahai-inguruak egitea izan zen elkarrizketetan parte hartu zutenen artean hainbat gai eztabaidatzeko. Azkenik inkesta bat egin zitzaizen 60 biztanleri berdintasunaren inguruan.

Herenegun arratsaldean azaldu behar zituen Miren Zeberio diagnostikoa bildutakoak, baina hitzaldia bertan behera gelditu zen



Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira Alegian egindako bazkaria. HITZA

ez baizen udal ordezkari ez gain beste inor azaldu bertara. Sarasolak azaldu duenez, «egia da gauza asko izaten dituela jendeak, baina diagnostikoan herritar batzuk zuzenean inplikatu zeuden, elkarrizketatuak izan direlako, eta beste batzuk inkestan ere parte hartu dutelako. Udaletik uste dugu interesgarria zela hitzaldia». Jendeak deialdira ez joatea «kezagarria» dela dio alkateak: «Ikusten da jen-

### Etxeko lanen eta zaintzaren pisua emakumeengana doa gehiago

deak ez duela espero dugun interresik jartzen. Agian ez dugu behar adina landu deialdiaren berri ematea eta hausnarketa bat egin beharrean gaude horren inguruan».

Diagnostikoaren inguruan, Sarasolak dioenez, «garbi erakusten du berdintasunaren inguruan jendea ari dela kontzientziatzen, baina oraindik asko dagoela egiteko, bai orokorrean, bai norbanakoek, bai lan munduan eta baita etxean ere». Aurrera begira, asmoa du Udalak «hor ateratzen diren egoerak, ekintza plan baten bitartez edo neurri batzuen bitartez hobetzeko. Agian ez epe motzera, baina bai epeertainera lanketa bat egin horri buelta emateko».

### Ondorioak

Rolen mantentzeaz gain beste ondorio batzuk atera ditu diagnostikoak. Hala, hezkuntza-baliabide egokiak beharrezkoak ikusten dira, berdintasuna txikitatik hasi eta adin guztietan lantzeko. Lan esparruan, emakumeek feminizaturako lanbideetara jotzen dute,

### ETXEKO LANETAN DESBERDINTASUNAK

Diagnostikoa osatzerakoan 60 inkesta egin dira adin desberdinetako gizon eta emakumeen artean. Jasotako informazioaren arabera, etxeko lanetan oraindik desberdintasunak daude. Iritzi hori emakumeetan gehiago ematen da gizonetan baino. Haurren heziketari dagokionez, orokorrean etxeko heldu guztiak parte-hartzen dute. Herriko baliabideen artean hobekien baloratutakoak garraio publikoa, ikastetxeak eta osasun zentroa dira eta gutxi baloratutakoak topaketa eta aisialdi espazioak.

Berdintasunaren inguruan, %60ak uste du emakumeek etxetik kanpo edozein lan egin dezaketela; eta %86,7ak gizonen etxeko edozein lan egin dezaketela. Sexuen arteko aukera berdintasunik dagoen galderaren aurrean, erdia baiezkoan dago, eta erdia ezezkoan. Ezezkoa emandakoez arrazoiak argudiatzen dituzte, genero-kontzientzia erakutsiz. Bestalde, %40ak pentsatzen du neskek eta mutilak era desberdinean hezten dituela familiak. %55ak emakumeek eta gizonen denbora libre kopuru desberdina dutela uste du. Azkenik, %77ak herrian emakume etorkinen egoera ona dela uste du.

eta gizonen maskulinizatueta. Bestalde, herriko ekintza eta taldeetan sexuaren arabera banaketa dagoela ere ikusi da.

Kontziliazio-zailtasunei dagokionez, etxeko lanen eta zaintzaren pisua emakumeengana doa gehiago. Lanarekin bateratzeko zailtasunak dituzte emakumeek.

Datuei begiratuz gero, urtean tratatu txarren 5-6 kasu izaten dira. Bestalde, adinekoen artean emakume gehiago daude Alegian. Imigrazioa denbora gutxian hazi egin da herrian. Udalean Emakumeen sail espezifikorik ez dagoela ere zehazten du diagnostikoak, eta herritarren artean eta Udalean genero-sentsibilitatea dagoela dio.

Etorritzunera begira, esku-hartzeko kolektibo klabeak ondorengoak lirateke: emakume langabeteak; lan-baldintza ezezagorretan dauden emakumeak;

familia-ardurak eta lana dituzten emakumeak; haur, nerabe eta gazteak; gizon gazteak; tratatu txarrak jasandako emakumeak; eta emakume etorkinak, bereziki komunikazio-zailtasunak dituztenak.

Esku-hartzeko proposamenak ere zehazten dira diagnostikoan. Enplegurako prestatzeko eta emakumeen enpleguaren ezaugarri eta baldintzak hobetzeko beharra ikusten da. Udalaren mailan, politikoen eta teknikoaren genero-gaiekiko sensibilitatea aprobetxatuz, prestakuntza eta aholkularitza teknikoak sustatzea proposatzen da, berdintasun politikak udal-sail desberdinetan lantzeko. Horrez gain, herritarrenganako sensibilitazioa lantzea aurreikusten da, espazio publikoetan emakumeen presentzia sustatzea eta genero berdintasuneko hausnarketa-espazioak sortzea.



Nikolas eta Ana Garaialdek familiako ofizioarekin jarraitzen dute, Orendaingo errota errotariak martxan jartzen dituzte egunero. A. BELAUNZARAN

# Orendaingo errota taupadak

**Gizartea** » Familiaren tradizioa eta ofizioa, afizio bihurtu dute Nikolas eta Ana Garaialde Orendaingo anai-arreba errotariak.

## AGURTZANE BELAUNZARAN

Alegiatik Amezketarako errepidean, eskuinetara geratzen da oraindik bizirik jarraitzen duen Tolosaldeko errota bakarrenetakoa. Erreak egiten du muga naturala. Alde batera, Alegiako lurak ditu eta erreka bestalde, Orendaingoak. Errota, muga honen barne dago eta Amezketatik datorren kanaleko urak baserriaren erraiak zeharkatzen ditu.

Uraren indarra probestuz, errotariak bihotz taupaden gisa mugitzen dira oraindik Orendaingo errota. Errotari lanetan, ofizioaren oinordekotza hartu duten Nikolas eta Ana Garaialde anai-arrebak aritzen dira.

## Errotari familia

Bost gizaldi atzera egin eta senitatekoak errotariak zirela diote Orendaingo errotari gazteek. Aitak, Juan Bautista Garaialdek, eta amak, Milagros Redondok, bizibide izan zituzten errotariak geratzeko asmorik ez dute. «Gurasoengandik ikasi genuen ofizioa eta gure aitak, aitonagandik... gure familia beti izan da errotaria. Dirurik uzten ez duen lana da, etxeoandreaena bezalakoa. Baina guretzat eguneroko kontua da errota martxan ikustea», dio Nikolasek. Arrebak ere bat egiten du anaiarekin: «tradizioarekin jarraitu nahi dugu, horixe zen gure aitaren eta

amaren ilusioa. Txikitatik errota-aren soinua entzun dugu etxean, sukaldetik kontrolatzen dugu errota-aren lana. Erritmoa edo zarata aldatzen badu badakigu arazoak dituela. Errota martxan dagoela siesta egitera ere ohituak gaude!», dio algarara artean Anak.

## Neguan lan gehien

Neguan egunero jartzen dute martxan errota. Artoa ehotzen dute batean, garia bestean. Garia ehotzen duela hamar bat urte hasi ziren errotariak, Juan Bautista eta Milagros errotari lanetan arizirela. Jende ugari hurbiltzen da negu-garaian artirin eta ogirin bila errota- ra. «Taloak egiteko txikitzen dugu artoa. Donostiako Santo Tomas

## «Gurasoengandik ikasi genuen ofizioa. Bost gizaldi atzera eginda ere errotariak ziren»

eguneko Konstituzio plazan saltzen diren taloak, hemengo arto-irinarekin egindakoak dira. Irina berriz, okin batentzat ehotzen dugu. Berak ekartzen digu garia eta guk zuntz gabekoa eta ogirin zuri normala prestatzen dizkiogu», diote errotariak. Inguruko herrietatik eta urrutia goetik ere etortzen dira bezeroak: «Goizueta eta Leizatik etortzen dira herriko

dendetan arto-irina saltzeko. Tolosako eta Ibarra denda batzuek ere ematen dute taloak egiteko arto-irina».

Dendariez gain edozein hurbildu daiteke errota, modu tradizionalan ehotutako arto-irina edo ogirina erostera, kalitateko ogia edo taloak egiteko. Nikolas eta Ana errota errotari lanetan arizirela biraka jartzeko prest.

Udaberriaren errota-aren lana gelditu egiten da. Ez ordea, errotaria-

## «Ehotzeko 40 kilo arto ekartzen zirenean, gure amak 4 kilo etxerako hartzen zituen»

rena. Nikolasi orain, aitak erakutsitako sekretuetako bat lantzea tokatzen zaio. Errotaria garbitzeko garaia da udaberria. Eta Nikolasek, lege zaharren egiten du lan hau, aitak erakutsi bezala.

Errotaren mekanismoa askatu eta errotariak zorrotz ekingo dio. Mailua arraitzean zorrotz eta eskuak pikatzen du harria, txukun-txukun. Zorrotz lanak amaitzean, errotariak garbitu eta harriak lehengo tokian jarriko ditu. Honela, errota prest geratzen da datorren neguan berriro lanean hasteko.

## Lehego eta oraingo garaiak

Gurasoen garaian neguan errota batzuetan jartzen zela martxan dute gogoan Garaialde anai-arrebek. Negu hotzetan eta elurteetan izaten omen zen lana. Nikolasek gogoan du nola etortzen ziren

Orendaingo errota-aren lana gelditu egiten da. Ez ordea, errotaria- Artoak preziorik ez zuen garaia ziren. Ehotzeko 40 kilo arto ekartzen zituen baserriak, 4 kilo errotariari ematen zizkiolarik. Gaur egun aldiz, anai-arrebek martxan duten errota, hantxe dago artoa eta irinaren prezioa sarre- rako atearen ondoan idatzia. «Prezioak idatzita ditugu, gure ama beti dudatan egoten zen bezeroi zenbat kobratu. Lan honek ez

Artoak preziorik ez zuen garaia ziren. Ehotzeko 40 kilo arto ekartzen zituen baserriak, 4 kilo errotariari ematen zizkiolarik. Gaur egun aldiz, anai-arrebek martxan duten errota, hantxe dago artoa eta irinaren prezioa sarre- rako atearen ondoan idatzia. «Prezioak idatzita ditugu, gure ama beti dudatan egoten zen bezeroi zenbat kobratu. Lan honek ez

## Egun, errota museo eta erakustoki bezala errekuperatu dira, lanbidea gogoratze

du dirurik ematen, gurea afizioko lanbidea da, hemendik ez dago bizitzetik», diote.

## Uraren indarrak harria mugimenduan jartzen duenean

Errotaren bi elementu nagusiak ura eta harria dira. Kanalean ura piltzen da, kanaleko atea irekitzean ura indartsu erortzen da eta etxearen beheko aldean dagoen errotariarekin talka egitean honek duen ardatza mugimenduan jartzen du. Azken honek, etxearen goran dagoen beste errotaria bi-

rarazten duelarik. Urak berriro errekarako bidea hartzen du. Bere indarra probesten da harriak mugimenduan jartzeko eta errota-aren zarata, bihotz taupaden gisan entzuteko.

## Herri bat, errota bat

XVII. mendetik XX. mende erdirarte, herri bakoitzak bazuen bere errota, zenbait herritan bat gehiago ere bazelarik. Errotak ezinbestekoak ziren garai hartako Euskal Herrian. Baserrietan, artoa jakinagusi zenean. Hamaika kontu ere esango ziren, artoa ehotzen zen bitartean baserriak eta errotariaren artean.

Industrializazioak, errotariaren ofizioa gainbeheran jarri zuen eta errotariak bizibidea kanpoan bilatu behar izan zuten. Pixkanaka-pixkanaka, errota abandonatzen joan ziren, honekin batera lanbidea bera ere galbidean jarri zelarik.

Egungo panoraman, Orendaingo errota, egunero martxan dagoen bakarrenetakoa da Tolosaldean. Euskal Herrian hala ere, errota berreskuratzeko lan handia egin da azken urteetan.

Amezketak dugu horren adibide-tako bat Tolosaldean, museo edo erakustoki gisa erabiltzen baita herriko errota.

Nikolas eta Ana Garaialdek ere eskolako umeen bisitak jasotzen dituzte, gaztetxoek Euskal Herrian hain garrantzitsua izan zen ofizioa eta bizimodua bertatik bertara ezagutu dezaten.

Gustura jartzen dute gainera errotaria taupadaka, urte luzez bizirik iraun dezan.

## E Elkarrizketa

OIHANE SARASOLA › Emon taldeko abeslaria

**Ibarra** » Emon talde gazteak 'Piztu herria' bere lehendabiziko lana kaleratu berri du; bertako abeslari da Oihane Sarasola. Gaur aurkeztuko dute diskoa Bonberenean.



### ESTI EZTZA

Emon taldeak gaur Bonberenean aurkeztuko du bere lehendabiziko diskoa. Kontzertua 22:30ean hasiko da eta beraiekin batera, Skaff-Links talde japoniarra entzuteko aukera ere izango da. Taldekide gehienak bergararrak baldin badira ere, ibartar bat da abeslaria, Oihane Sarasola, hain zuzen ere. *Piztu herria* jarri diote izenburu Babel diskoetxearekin ateratako argitalpenari.

### Noiz jaio zen Emon taldea?

Bergaran sortu zen taldea 2006an, eta ordutik hona, taldekideak gehitzen joan gara. Instrumentu ezberdinak jotzen zituzten lagun batzuk elkartu ziren, eta tarteka jotzen hasi ziren. Baina gero, taldea forma hartzen joan zen, batzuek utzi egin zuten eta beste batzuk gehitu ginen. Orain ere Bergaran dugu entsegu lokala, baina taldekideetako batzuk batzuk bizkaitarrek ere badira.

### Nolan ibartar bat Bergarako talde batean?

2007an Emoneko abeslariak taldea utzi zuen, eta kantu txapelketatik ezagutzen zidatenez, talde-rahitzea proposatu zidaten. Beraiekin hitz egin ostean, frogatu batzuk egin nituen, eta hor jarraitzen dut.

### Nolan etorri da orain diskoa?

Duela hilabete batzuk erabaki genuen zer bait grabatzeko garaia iritsi zela. Hala, jendeak gure musika errazago ezagutuko baitzuen. Hasi batean, gure aldetik ekoiztea zen asmoa, baina Babel Music diskoetxearekin gurekin jarri ziren gurekin harremanetan, eta beraiek kaleratzeko proposatu ziguten.

### Garai hauetan, ez da erreza disko bat kaleratzea ezta?

Bai, zaila da eta alde horretatik zor-tea izan dugu. Estudio batean grabatu dugu, eta Anjel Katarain ar-

duratu da nahasketak eta masterizazioa egiteaz. Gainera, hau guretzat ohore bat izan da, onenakoa bat baita.

### Zer moduzko esperientzia izan da grabazioarena?

Ona, baina arrazoiz ezberdinengatik, korrika ibili behar izan dugu. Izan ere, maiatzerako prest izan nahi genuen dena, gero udari begira, promozioa egin ahal izateko. Horregatik, ideia garbiekin eta grabaketarako dena ongi prestatu genuen gauzak ahalik eta hoberen ateratzeko. Dena den, moldatu gara, eta uste baino hobeto geratu da dena.

### Gustura geratu zarete beraz, emaitzarekin?

Bai, baina egia da, beti dagoela zerbait hobetzeko. Hala ere, lehendabizikoa da, eta hurrengorako badakigu jada zer ez dugun egin behar.

### Kantu dantzagarriak egiten dituzuela diozue.

Bai, reggae, funky eta ska doinuak dira nagusi. Taldeko kide gehienek estilo hau gustatzen zaigu, eta eroso gaude estilo honetako musika egiten. Azken batean, Emon taldearen helburua da festarako giro

ona jartzea, eta horretarako egokiena musika hau dela uste dugu.

### Abestiak nola konposatzen dituzue?

Denak arduratzen gara horretaz. Bakoitzak bere proposamenak eta ideiak ematen ditu, eta elkarrekin osatzen ditugu. Bestalde, Bergarako bertso eskolatik esaterako, ekarri digute letraren bat ere.

### Zeren inguruan hitz egiten duzue zuen abestietan?

Denetik pixka bat. Oro har, gaur egungo gizarte gaien inguruan mintzatzen gara: Euskal Herriko egoeraz, parrandez, AHTaz... Baina honez gain, Jamaikako talde baten abesti baten, *Monkey Man*-en bertsiot bat egin dugu *Iraultza jai*a izenburupean, eta Jamaikako iraultzaren inguruan hitz egiten du.

### Kolaboratzaileak ere izan dituzue lehendabiziko disko honetan.

Bai, esaterako, *Lerro zuzena* abestian, Betagarriko Iñakik abesten du nirekin batera. Gurekin kolaboratzeko eskatu genion eta prest agertu zen. Honez gain, Esne Beltzako Zigor Dz-k scratchatzaile lanak egin ditu *Izan zu* abestian. Azkenik, Sagarroiko Gorka Baskara-

nek perkusioa ukitu batzuk sartu ditu abesti ezberdinetan.

### Doinuak edo hitzak dira zuentzat garrantzitsuago?

Bakoitza bere aldetik doa. Hau da, batetik, letra egiten dugu, eta bestetik, musika. Garrantziabiei ematen diegu, nahiz eta musika lehenago egiten dugun. Dena den, guretzat oso garrantzitsuak dira hitzak eta hasieratik argi izan dugu, hitz gutxitan gauzak garbi esan nahi ditugula.

### Gazteek ere badute zer esana beraz?

Guk gure musikarekin zabaldu nahi ditugu gure aldarrikapenak eta ideiak. Honekin erakutsi nahi dugu, gauza batzuekin ez gaudela ados, eta ezta ere lo, mugitzen garelara.

### Gaur hasiko duzue aurkezpen bira Bonberenean.

Aspalditik jo nahi genuen Bonberenean eta orain suertatu zaigu autiera. Bestalde, denbora luzean aritu gara disko prestatzen eta hau zuzenean aurkezteko gogo handia daukagu. Bonbereneakoaren ostean, Bergarako jaietan joko dugu, eta beste hainbat emanaldi ere lotuak ditugu.

# «Hitz gutxitan gauzak garbi esan nahi ditugu»

## Lur gaineko Euskadiko Txapelketan hasiko da lehia bihar Areso

### ERREDAKZIOA

Bihar hasiko da lur gaineko Euskadiko Sokatira Txapelketa. Jardunaldia Erandioko (Bizkaia) Erandio Goikoan izango da, 11:00etan.

Iaz bezala, bost klub edo elkarte ariko dira lehia, tartean Areso. Eskualdekoak ez zuen ia zko txapelketa bukatu, baina aurretik hasieratik lehiatu da. Ondoko bost elkarteok ariko dira txapelketan: Bizkaiko Goiherri (Erandio), Getxo eta Gaztedi (Laukiz); Gipuzkoako Mutriku (Mutriku) eta Nafarroa Garaiko Areso (Areso). Pisuei dagokienez, berriz, 580, 600, 640 eta 680 kilokoak izango dira.

Gaurkoan, pisurik astunenekoek jardungo dute, 680 kilokoek. Sei talde dira sokan aritzekoak: Getxo, Goiherri A eta B, Areso, Mutriku eta Gaztedi A. Baliteke Gaztedi B-k ere jardun ahal izatea. Hiru jardunaldiko ligaxka jokatuko dute, eta horietan lorturiko puntuek erabakiko dute sailkapena.

## Orexako errepeidean mozketak egingo dituzte datorren astean

### ERREDAKZIOA

Orexako errepeidean (GI-361) trafikoa mozketak egingo dituzte datorren asteartetik ostiralera bitartean. Foru Aldundiak jakitera eman duenez, bitarte horretan, galtzadan zenbait hobekuntza egingo dituzte. Goizez, 08:30etik 13:00etara itxiko dute, eta arratsaldez, 14:00etatik 16:30era.

Lanen bidez arekan hormigoia zabalduko dute. Hala, horretarako arekak egiteko makina erabiliko dutenez, bide-zati hori ez da nahikoa zabaldu hormigoia kamioiekin zamalanak egiten diren bitartean ibilgailuen joan-etorriari eutsi ahal izateko.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan  
DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 118. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leizaldea:** 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

**BERTAKO HEDABIDEAK**

eta Tolosaldeko eta Leizaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Sei argazki hauek dira TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK antolatutako lehiaketaren parte hartzeko jasotako azken irudiak. Bihar bertan jakingo duzue zeintzuk diren azken zortzi argazki finalistak. Astelehenetik aurrera hasi ahal dira harpidedunak bozkatzen.

## XI. Argazki Lehiaketako azken argazkiak




**VILLABONA** ●  
«Aste Santuan Granadako hiriburuko kaleetako giro, usain eta balkoietako lore eta dekorazio politaz gozatzeko aukera izan genuen. A ze balkoi ederra hori!». LIERNI MENDIA ETXABE



**VILLABONA** ●  
«Aste Santuan Alpujarratan (Granadan) izan ginen. Etxe txuri eta Mulacen-eko elur txuriari begi-bista kendu ezinik, hango aire ederra arnastuz». AINHOA MENDIA ETXABE



**VILLABONA** ●  
«Aste Santuan familiarekin Granada inguruko lasaitasun eta bakeaz gozatzeko aukera izan genuen, Alahanbratik ateratako argazkia San Nicolas begiratokia aurrean dugularik, zeinen polita!». HASSANAIT CHAOUAITALI



**TOLOSA** ●  
«Kubako jende, kultura eta paisaia zoragarriekin gozatzeko aukera izan dugu». IRATIKARRERA

### A Agurrak



**Zorionak Manex!**

Enbor sendoa, sustrai luzeak... eta adarrak kimatuak... kar, kar, kar...

### A Agenda

#### Kultura

■ **Tolosa.** Expo Kultur 10:00etatik 20:00etara Kultur Etxean, 11:30ean Planeta Reggae tailerra; 12:30ean Revolutionary Brothersen kontzertua; eta 19:00etan Emsordutan eta Peachy Jokeren kontzertua.

#### Zinema

■ **Tolosa.** *Flor del desierto* filma Leidor aretoan 19:30ean.

#### Musika

■ **Tolosa.** Skaff-Links (Japonia) eta Emon musika taldeen kontzertua Bonberenean 22:30ean.

#### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Ibarra.** Ugarte, M. T. Euskal Herria kalea, 46. 943 67 32 74.  
■ **Lekunberri.** Azpiroz, M. A. Aralar kalea, 43. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



**TOLOSA** ●  
«Gaztelugatzen ateratako argazkia da. Benetan leku zoragarria». MERTXE IPARRAGIRRE



**TOLOSA** ●  
Xubanek Araian ateratako argazkia bidali du: «Herri oso polita eta lasaia da, katua ere trankil-trankil izan zen». XUBAN